



elkarkidetza® pentsioak

13.zk. 2007 EKAINA

titularrak

Sistemaren sinplifikazioa

..... 5.orr.

Webgunea: Gogobetetze inkesta

..... 8. eta 9. orr.



2006KO BATZARRA

2006ko Kontuak eta Kudeaketa Txostena gehiago osoz onartu dira, %90aren babesarekin

..... 2. eta 3. orr.

DINAMIZAZIOA

Elkarkidetza eta komunikazio estrategiak

..... 6. eta 7. orr.



Emaitza onak 2006an

2006ari dagozkion ikuskatutako emaitzek gizarte aurreikuspenaren alorreko erreferente gisa berresten dute Elkarkidetza.

Pasa den martxoan Elkarkidetzako Batzar Orokorrak gehiago osoz, %89,69aren babesarekin, onartu zituen 2006ko ikuskatutako Kontuak eta Kudeaketa Txostena. Urte horretan zehar 15 milioi euro ordaindu zitzaizkien 3.115 pentsiodunei eta errentagarritasun

garbia %7,29koa izan zen, errentagarritasun historikoa %9,5ean kokatzen duena. Gainera, prestazioengatik kuoten soberakinengatik eta ekitaldian zehar lortutako errentagarritasunagatik, Entitatearen ondarea 587,55 milioi eurotara iritsi zen, aurreko urtean lortutako zifra %10,75 hazi dela adierazten duena.

2006ko abenduaren 31n, 24.455 bazkidek osatzen zuten erakundea.

editoriala

www.elkarkidetza.net

© Elkarkidetza EPSV.
e-mail: elkarkidetza@elkarkidetza.net
ARABA. Ramón y Cajal 7 y 9. 01007 VITORIA-GASTEIZ. Telf.: 945.14.11.41
BIZKAIA. Gardoki, 2 bajo. -48008 BILBAO Telf.: 94.415.55.78
GIPUZKOA. San Martín, 2-20005 DONOSTIA. Telf.: 943.43.02.56



2006an Elkarkidetzak 15 milioi euro ordaindu zizkien 3.115 pentsiodunei

Elkarkidetzako Batzar Orokorrek gehiengo osoz %89,69aren babesarekin, onartu zituen 2006ko ikuskatutako Kontuak eta Kudeaketa Txostena. Halaber, urte horretan bertan 16,98 milioi euro ordaindu ziren prestaziotan –2005ean baino %20,68 gehiago– eta horietatik 15 milioi 3.115 pentsiodunei pagatu zitzaizkien. Eskuratutako emaitzek Elkarkidetzak gizarte aurreikuspenaren alorreko erreferente gisa berresten dute. Batzar orokorra martxoaren 21ean eta 22an ospatu zen Bilboko Ercilla hotelean eta Gasteizko Europa jauregian.

Elkarkidetzako presidentea den Jon Zabaliak ontzat jo eta ezarritako helburuak progresiboki lortu direnako urte horretan Entitateak izandako garapena aurkeztu zuen. Errentagarritasun garbiak %7,29 lortu zuen –errentagarritasun historikoa %9,5ean kokatzen duena–, entitate kudeatzailearen erreserbek 9,87 milioi euroko hazkundera izan zuten eta 2005ean %124,60an kokatzen zen estaldura %132,29ra pasa zen 2006an.

Elkarkidetzak lortutako emaitza ekonomikoa 38,6 milioi eurokoa izan zen, kudeaketa gastuek administratutako ondare guztiaren %0,5 gainditzen ez zutelarik. Kuotengatik eta primengatik diru-sarrerak 35,5 milioi eurokoak izan ziren, iaz baino %6,36 gehiago alegia.

Gainera, Elkarkidetzako presidentek –kontuan harturik Elkarkidetzak epe ertainera eta luzera pertsonen euren konfiantza jartzen duteneko entitatea dela– hurrengo urterako helburu nagusia komunikazioa izango dela nabarmendu zuen. Hortaz, eta Entitatearekin duten hurbiltasuna mantentzearen, mutualistekin eta erakundeekin komunikazio aukera guztiak garatuz jarraitu behar direla nabarmendu zuen. Era berean, urte amaieran erakundera osatzen zuten bazkideak 24.455 zirela azpimarratu behar da.

Sistemaren sinplifikazioa

Batzarrean zehar Jon Zabaliak planetako eskubide ekonomikoak Elkarkidetzak BGAE-ra mugitzeko aukeraren berri eman zuen. Aukera horrek –jadanik garatzen ari

Zenbakitan

Bazkideak

24.455 pertsona

Ordaindutako prestazioak

16,98 milioi euro,
2005ean baino %20,68 gehiago,
eta horietatik 15 milioi
3.115 pentsiodunei
ordaindu zitzaizkien.

Errentagarritasun garbia %7,29,
Bataz besteko errentagarritasun
historikoa %9,5,


Bildutako kuotak

35,5 milioi, iaz baino %6,36 gehiago.

Ondarea

587,55 milioi euro,
%10,75eko hazkundera
2005 urtearen aldean.

Pentsionisten taldea



dena– gure kudeaketa zeharo sinplifikatuko luke. Bigarren bileran iazko Batzarrean ezarritako helburu horren betetze maila altua egiaztatu zen, alegia, iaz deitutako planak lauhun baino gehiago izan baziren ere, aurten –horietako askoren eskubide ekonomikoak BGAE-ra lekualdatu ostean– deitutakoak 417 pertsona izan ziren, 87 plan ordezkatzeko zituztenak. Beherakada hori gorabehera, dezente izan ziren bertaratu zirenak, eta are gehiago egun horietako eguraldi txarra kontuan hartuz gero.

Zentzu horretan, Sistemaren Ereduaz mintzatzean 2006 urtea aipatu beharrenek une horietako bat izango da. Urte horretan –azkenik– eman baitzen 1990ean –Elkarkidetza Pentsio Fondoa osatu eta

planen sistema osoa garatu genuen urtea– garatzen hasi ginen zirkulua ixtea ahalbidetzen digun Legea.

Beste alde batetik, Elkarkidetzak, lege eremuan eta europar eremuan, Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Federazioarekin eta Europako Sektore Publikoko Erakundearen Elkartearekin lanean jarraituko du, helburua gure iritzia Europako sistema osagarrien etorkizuneko eskema orokorrak garatzen ari diren geroz eta europarragoak diren foruetara ezagutzera ematea delarik.

Estatutu-moldaketak

Administrazio-kudeaketa errazteko asmoz, Batzar Orokorrak hiru estatutu-moldaketa onetsi zituen. Sei hilabete baino gehiagoz harremana etenda egondako bazkideen birsartzea, bazkide osoen harrera eskaria eta prestazioen aitortpena Gobernu batzordeak onartzeko beharra kentzen da. Funtzio horiek Presidentean eta Presidenteordean eskuordetzen dira, azken hauek ondoren Gobernu batzordeari guzti horren berri emango diotelarik.



Gehikuntza berriak



Iaz bi pertsona gehitu ziren Gobernu Organoetara, batetik **Lourdes Martínez de Lagos Manzana** andrea Arabako Foru Aldundiaren Ordezkaritzan, eta bestetik **Rafael Oribe Onaindi** jaunak ELA sindikatuaren ordezkaritzan.

Era berean, Pentsio Fondoaren Batzorde Betearazlearen Gasteizko Udaleko Pentsio Planen ordezkaria den **Roberto Vidal García** Lehen Presidenteordea hautatu dute.

Inbertsioa: epe luzerako ikuspegia eta hurbiltze zuhurra merkatu rik hegazkorrenetara

Kudeatzaile aditu batek espero lezakeen moduan gauzatzen ari da ekitaldia. Errenta Finkoaren garapenari buruzko aurreikuspenetan igartze maila altuagoa izaten ari da –neurri batean banku zentralak merkatuetan dauden arriskuei buruzko euren pertzepzioak aurreratzean egiten duten lan pedagogikoari esker– baina interes-tasek gora egitearen ondorioz orain arte errentagarritasuna eskasa izaten ari da.

Errenta Aldakorrean eskuratutako emaitzak guztiz onargarriak dira, aktibo hori askoz hegazkorragoa baita, otsaila eta martxoa bitartean jasandako murrizketek, indizeak berera itzuli dituen ondorengo susperraldi apartak eta Espainiako higiezin enpresen kotizazioak pairatutako beherakada bortitzak argi utzi dutenez. Murrizketa epe luzeko inbertitzaile batek bere estrategiaren barne onartzen duen burtsaren berezko erreakzioa den heinean, kudeatzaileak ez ditu zertan harrigarriak aurkitu higiezin enpresen sektoreko beherakada bortitzak, oraindik erretorno aukera fidagarrietara moldatutako inbertsio aukerak existitzen diren burtsa merkatuetan zentzuzko mailak gainditzen dituzten prezioek eragiten dituztenak.




Elkarkidetzaren ondatearen banaketa 2007ko apirilaren 30ean.

Elkarkidetzan epe luzerako ikuspegia eta merkatu hegazkorretarako hurbiltze zuhurra mantentzen dugu. Gure ondatean merkeenak direla uste ditugun indizeak neurtzen ditugu. Hori dela eta, IBEXrako esposizioa murriztu izan dugu.

Bestetik, lau urtetan emandako burtsa igoerek, higiezin alorreko inbertsio joritasunek eta euren baliabideekin justifikatzen zailak diren eragiketak burutzen dituzten inbertitzaileen nabaritasunak Inbertitzaileak hartutako arriskuak balioztatzean nolabaiteko erlaxazioa eragiten dute, eta era berean eskaintzaren partetik nahi horiek sofistikazio handiko produktuekin asetzeko ahalegina –inongo bereizkeriarik gabesorrarazten dute.

Zentzu horretan, harrigarria suertatzen da Hedge Funds bezalako inbertsio formulak izaten ari diren sustapena, orain arte euren gardentasun eskasa, likidezia mugatua eta errentagarritasun altua zirela eta inbertitzaile profesionalentzat, inbertsio-zorroen osagarri mugatu gisa, gordetzen zirenak eta orain neurri egin-dako errentagarritasunekin eskaintzen direnak.



Pentsio sistemaren sinplifikazioa

Hona hemen urte honetako lehen seihilabetekoan Entitateko, eta nagusiki, Lurralde Ordezkaritzetako langileen jardura bideratu duen alderdietako bat: Elkarkidetza Pentsio Fondoa osatzen duten 442 Pentsio Planen Kontrol Batzordeetako kideei Plan horiek deuseztatzeko eta Elkarkidetza BGAE-n barneratzeko egindako proposamena azaltzea.

Azaroaren 28ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko 35/2006 Legea estatu mailan indarrean sartzeak aukera hori ireki du. Estatu mailako Lege horren xedapenen artean partaideen eskubide ekonomikoak gizarte aurreikuspen sistema desberdinen artean intsuldatzeko aukera jasotzen da. Lege erreforma horren bitartez, sektore publikoko gizarte aurreikuspen osagarriaren lege-esparrua itxi egin da gure Entitatean eragin berezia izanik.

Planen Kontrol Batzorde bakoitzak eskubide ekonomikoak Elkarkidetza BGAE-ra lekualdatzeko erabakia hartzeko aukera ireki zen urtarrilaren 1ean. Horrela, eta ia 20 urteko etenaldiaren ondoren, sistema berera itzuli da, alegia, BGAE bakarria dago bazkide diren erakundeentzako eta langileentzako. Urte horietan zehar BGAE bat eta Pentsio Fondo bat bizikide izan dira. Lehena Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko 25/1983 Lege autonomikoaren menpe aurkitzen zen eta parte hartzaile ziren bazkideen ekarpenak jasotzen zituen. Estatuko legediaren menpe aurkitzen zen bigarrenak enpresen ekarpenak jasotzen zituen eta 442 pentsio plan biltzen zituen, hots, bat atxikitako erakunde bakoitzeko.

Kontrol eta Konfiantza handiagoa


Araudi bikoiztasun horrek entitatearen kudeaketa zeharo zailtzen zuen eta ahalgin administratibo garrantzitsua suposatzen zuen. Eta hori lau urterik behin Kontrol Batzordeetako partaideen berriztapena burutu behar zelako eta pentsio planen araudien moldaketak lege aldaketekin bateratzeko akordioetarako 442 Batzordeekin, banan-banan, bildu beharra zegoelako. Ereduaren sinplifikazioak plan guztiak BGAE bakarrean barneratuz –behin Pentsio Planen Kontrol Batzorde guztiak desagertu direla– komunikazio plan bat indartzeko eta garatzeko beharrezkoak diren bitartekoak eta baliabideak erabiltzea ahalbidetuko digu, hots, gure bazkideei hurbiltasun gehiago, in-

formazio maila handiagoa, gardentasun handiagoa eta azken batean kontrol handiagoa eskura jarriko dien plana.

Sinplifikazio horren ondorio nabariena honako hau izan da: pasa den martxoaren 22an ospatutako Pentsio Fondoaren Kontrol Batzorderako 87 planen ordezkariei bakarrik deitu zitzaizela, alegia, desegiteko eta euren eskubideak BGAE-n barneratzeko erabakia oraindik hartu ez dutenei. Martxoko hitzorduaren ostean

aurrera egin duen prozesu horrek egun Elkarkidetzan formulazio juridiko horren baitan gutxi batzuk baino ez egotea suposatu du. Prozesuaren azken helburua, oporrak amaituta eskuratzea espero duguna, pentsio planak desagertzea eta talde guztia bilduko duen BGAE batek aurrera egitea da.

Gainera, argi utzi nahi dugu moldaketa horrek ez duela eragin negatiborik izango gure gaur egungo bazkideek, pasiboek eta aktiboek gozatzen dituzten eskubideetan. Aitzitik, Elkarkidetza bazkideetara hurbiltzeko garatutako Komunikazio Planaren partaideentzako informazio eta komunikazio ekintzak indartzean denbora eta baliabidea gehiago erabiltzea ahalbidetuko digu.





Elkarkidetza eta komunikazio estrategiak

Elkarkidetzak burutzen duen prozesuan komunikazioa bere helburu estrategikoak eskuratzeko funtsezko tresna da, dela barne esparruan (Entitateko giza taldearekin dituen harremanak) dela bazkideekin eta gizartearekin oro har dituen loturak sustatzeko.

Horiek horrela, eta xedea helburu den publikoarekin eta erlazio esparruekin loturak errazten dituzten bideak garatzea delarik, Elkarkidetzak Komunikazioaren Eten-gabeko Hobekuntzarako Plan bat du. Plan horrek Erakundearen korporazio-kulturaren sustapena bilatzen du, eta are zehatzago, langileekin, bazkideekin eta erakundeekin dauden harremanak optimizatzea. Ekimen horien guztien azpian zerbitzuaren hobekuntza orokorra aurkitzen da.

Hortaz, bazkideekin dauden harremanak indartzeak, informazio egokirako eta gardentasunerako prozedurak abiarazteak eta kudeaketarako kalitate plan bat ezartzeak Entitatearen hiru helburu estrategikoak osatzen dituzte.

Erabilitako tresnak

Elkarkidetzak komunikazioaren alorrean bitarteko desberdinak erabiltzen ditu bere helburuak eskuratzeko.

Gure bazkideen informaziorako, komunikaziorako eta aholkularitzarako lehen bitartekoa Ordezkaritzak dira, dela bisita pertsonalen bitartez dela telefono deien bitartez. Pertsonak osatzen dute Elkarkidetza, hori dela eta ez dugu urruna eta ezezaguna den erakundearen irudia eman nahi. Positibotzat eta aberasgarritzat jotzen ditugun lotura pertsonalak ezarri nahi ditugu. Era horretan, Entitatearekin lotura duen edozein arazo sortzen denean denik eta arinen eta zuzenean konpontzen saiatuko gara.

Beste komunikabide bat Kudeaketa Txostena da, Memoria laburbiltzen duen agiria eta Entitatearen bazkide bakoitzari –azken ekitaldi amaieran zituen Eskubide Ekonomikoen zenbatekoa adierazten duen Eskubide kontsolidatuen Ziurtagiriarekin batera– etxera bidaltzen dioguna.

Gainera, bi Informazio-aldizkari argitaratzen dira, lehena ekainean bidaltzen zaie bazkideei eta bigarrena abenduan. Aldizkariak arreta berezia eskaintzen die kudeaketari, inbertsioei, sektore Publikoko pentsioen instituzioen Europako Elkarrearen jardueri eta parte hartzeari eta baita webgunearen erabilpen desberdinei ere.

Interneti dagokionez, komunikazioaren etengabeko hobekuntza planaren parte diren bi alorretan aritzen gara lanean. Bate-tik, Intraneta eguneratu da, Entitateko langileen eta Sailen lana hobetzen laguntzen eta, zalantzarik gabe, bazkideentzako islapen positiboa izango duen barne kudeake-

tarako tresna. Bestetik, Elkarkidetzaren Webgunearen berrikuntza amaitu berri da, bai zati "publiko edo ireki" deritzonarena baita bazkideentzat pribatua denarena ere.

Oro har, webgune berria egiterako orduan edukien sinplifikazioa, egungoa eta erakargarria den diseinua, eta webguneko atal desberdinetarako sarbideen erraztasuna eta bizkortasuna bilatu da. Halaber, atal eta esteka berriak erantsi dira, eta baita eskuragarritasuna bermatzen duten beharrezko osagai teknikoak ere, webgunea edonork erabiltzeko modukoa izan behar delako, bere baldintza fisikoak edo psikikoak edonolakoak direla ere.

Horrela, Agiri atalaren barnean azken ekitaldietako memoriak aurkitzen dira besteak beste, zeinetan Kudeaketa Planak, Auditoretzak, Azterlan Aktuarialak, Balantzeak, Galeren eta Irabazien Kontuak eta Entitateko Aurrekontuak biltzen diren.

Bazkideen arloak -"Interneteko Bulegoa"- garrantzi berezia izan du. Erakundearekin zuzenean harremanetan jartzeko modua da eta horrez gain norberaren egoerari buruzko informazioa eskuragarri dago bertan, baita Aurrezki planeko datu ekonomikoak eta erretiroagatiko eta ezintasunagatiko prestazioak kalkulatzeko simulagailuak ere.

Hori guztia kontuan hartuta, webgunea komunikaziorako oinarritzko tresna izango delakoan gaude, bai oinarritzko informazioa lortu nahi dutenentzat, bai Elkarkidetzako Aurreikuspen sistemari buruzko ezaugarria xeheagoa eduki nahi dutenentzat.

Parte hartzea sustatu

Zuzeneko harremanak alde batera utzita, orain arte webguneko Kontaktatu atalaren bitartez bakarrik egin zitezkeen iradokizunak edo kexak, idazkiak Ordezkaritzetara edo Webmasterera bidaliz, baina zerbait gehiago egin dezakegula uste dugu.

Parte hartzea erabakigarria izaten ari da. Harreman hobeak bazkideen arazorik garrantzitsuenak antzematea ahalbidetuko digu. Elkarrizketa hori pertsonen Entitatearen garapenarekin lotura duten alderdiek zein neurritan eragiten dieten ulertzean eta lortu dutena ikustean bakarrik izango da aberasgarria.


Hori dela eta, elkarrizketa hori inkesta batekin suspertu nahi dugu.


Gogobetetze inkesta

Informazio aldizkari honetan Komunikazioaren Kudeaketa Hobetzeko Planaren barnean aurkitzen den inkesta bat aurkezten dizuegu. Inkesta horren helburua Elkarkidetzaren osatzen dutenen -aktiboen zein pasiboen- gogobetetze maila, Entitatearen alderdi desberdinei dagokionez (konfiantza, jasotako informazioa, webgunea, jasotako arreta, etab.) ebaluatzea da.

Inkesta anonimoa da. Lortutako datuak Elkarkidetzako langileek bakarrik erabiliko dituzte zuen ustetan hobe daitezkeen alderdiak detektatzeko. Hortaz, aldizkari honetan atxikitako inkesta betetzera animatzen zaituztegu, posta bitartez inongo gasturik gabe helarazi ahal diguzue.


Gainera nahiago dutenek webguneko zati pribatuan bete ahal izango dute, aldizkari honen erdiko orrialdetan zehazten den moduan.





3. "Gogobetetze inkesta" aukeratu.

3. Seleccionamos "Encuesta de Satisfacción".



4. Galdetegia bete.

4. Rellenamos el formulario.

Martxoan Elkarkidetzaren osatzen duten pertsona guztiei webgunetik zuzenean euren datu pribatueta sartzeko pasahitza bidali zitzaion.

Zure pasahitza gogoratzen ez baduzu webgunearen bitartez eskatu dezakezu.

El pasado mes de marzo se envió a todas las personas partícipes de Elkarkidetzaren la clave personal para acceder de manera directa a sus datos privados a través de la página Web.

Si no recuerdas tu clave personal puedes solicitarla por medio de la propia Web.

www.elkarkidetzaren.net